




DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Donostia Kirola



memoria - 2018



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Donostia Kirola



MEMORIA 2018




DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Donostia Kirola



KIROLA ETA KIROL JARDUERAREN PRAKTIKA BIZITZA OSASUNGARRIAREN OHITURA BIHURTUZ

KIROL PRAKTIKA DONOSTIAN (KIROL OHITUREI BURUZKO IKERKETA-2017)



Donostiarren %73,84k (16 urtetiko gorakoek) kirol mota edo kirol jardueraren bat egiten du, gutxienez astean behin, eta saio bakoitzari gutxienez ordu-erdia dedikatzen dio. Portzentaje hori %73koa da emakumeen artean eta gizonen artean, berriz, %75era iristen da.



Donostian gehien praktikatzen diren kirol jarduerak, generoaren arabera			
EMAKUMEAK		GIZONAK	
IBILTZEA	38,75%	RUNNING	24,36%
ARETO JARDUERAK	35,96%	TXIRRINDA	17,76%
GIMNASIOA	13,33%	GIMNASIOA	17,76,%
TXIRRINDA	10,88%	IBILTZEA	16,82%
IGERIKETA	9,55%	IGERIKETA	16,82%
RUNNING	8,43%	FUTBOLA	12,15%


KIROL TXARTELA

Kirol Txartelako harpidedun kopuruak zertxobait igo egin da 2018. urtean (%1a), eta azken urte hauetan egonkorra mantendu egin da nahiz eta Altza kiroldegia itxita izan. Udalaren kirol instalazio guztietan harpidedunak diren biztanleriaren portzentajea (Kirol Txartela gehi Zuhaitzi, Tenis, Manteo, Mons eta Pío Barojako harpidedunak) %30tik gora jarri da..






Modalitatearen araberako harpidetzak




Auzoan arabera harpidedunen banaketa






Harpidedunaren banaketa generoaren arabera





Harpidedunen banaketa adinaren arabera




KIROL JARDUERETAKO KANPAINAK

Donostia Kirolak antolatutako kirol kanpainen partaidetza zertxobait jaitsi egin arren, 35.000 partaidetik gora jarraitzen du. Kirol Ekintzak Kanpainan izandako gorakada berri bat azpimarratu behar da (18.000 partaidetik gertu), eta UDA Kanpainan erregistratu den jaitsiera ere, non eguraldiak asko baldintzatzen duen ikastaro hauetan partaidetza.






UDA Kanpainako partaidetza







Eskola Igeriketa kanpainako partaidetza



UDAL KIROL INSTALAZIOAK

Udal kirol instalazioetan erregistratzen diren erabilera kopurua hiru milioitik gorako kopuruan finkatzen da, nahiz eta zertxobait jaitsi Altza Kirodegiko itxtearen ondorioz. Paco Yoldi udal kiroldegia da donostiarrek gehien erabiltzen duten instalazioa.







DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Donostia Kirola




memoria - 2018



KIROL AGENTEAK: EZINBESTEKO ALIATUAK



KIROLAREN SUSTAPENA

Donostia Kirola ematen dituen dirulaguntzen kopurua nabarmen igo ze 2016. urtetik aurrera, zeren eta ordura arte Udalak ematen zituen dirulaguntza zuzenak eta izendunak Donostia Kirolaren aurrekontura pasa dira eta erakunde honek kudeatzen ditu. 2017. urtean emandako dirulaguntzen jaitsiera ematen da: alde batetik, Klasikara dirulaguntza berriro udaleko aurrekontura pasa baitzuen. Dirulaguntzen kopuru hauen %56 lehiaketan bidez eman dira (urteko deialdia), %40,5 izendun dirulaguntzak izan dira eta gainontzeko %3,5 dirulaguntza zuzenak.





LEHIAKETA OFIZIALETAN PARTAIDETZA

Lehiaketa ofizialetan partaidetza (eskola kirola eta kirol federatua) oso maila altuan mantentzen da, batez ere eskola kiroleko eremuan. Kirol federatua lizentzien kopurua egonkorra da, baina azpimarratu behar da eremu honetan emakumeen lizentzien kopuruak duen gorakada.




KIROL FEDERATUAN BERDINTASUNAREN BILA



HERRI KIROL JARDUERAK

Proba herrikoietan partaidetzak marka berri bat lortu du 2018. urtean: 71.000 pertsona. Aurten antolatutako kirol probak 70-ko kopuruaren inguruan mantentzen dira eta 60.867 partaide bildu zituzten 47 herri lasterketak azpimarratu behar dira (hauetariko %44a Behobia-SS lasterketari dagokio).



KIROL EKITALDIAK

2018. urtean 40 kirol ekitaldi antolatu ziren, urtean zehar banatutako kirol ikuskizunen urteko egutegia finkatuz. Egutegi honek osatzen dituzten ohiko jardueraz gain (Maratoia, Erregeen Krosa, Behobia, zaldi lasterketak, nazioarteko triatloia, estropadak....) 2018. urtean hirian beste kirol ikuskizun handiak ikusteko aukera izan dugu, besteak beste, Espainiako hondartza futboleko selekzioen arteko txapelketa, Espainiako Bela Arineko Txapelketa edo Nazioarteko Igeriketa Txapelketa.

KIROL IKUSKIZUNAK 2018	HILABETEA
Nazioarteko Erregeen Krosa	Urtarrila
Donostiako Nazioarteko Krosa	Urtarrila
Real Sociedad-Salzburg (Europa League)	Otsaila
Binakako Pilota Txapelketa	Martxoa
Munduko Eskubaloiko Txapelketarako Sailkatzeko Partidua España – Alemania	Martxoa
Nazioarteko Donostia Hiria Xake Saria	Martxoa/Apirila
Nazioarteko Eskrimako Merche Usal Txapelketa	Apirila
Estatuko Eskolen Arteko Gimnasia Txapelketa	Apirila
Zaldien Jauziak Elodie Bercetchet Oroimenez	Apirila
Real Sociedad-Eko Nazioarteko Futbol Txapelketa	Apirila
Amstel Radler Donostia Paddle Tour	Ekaina
Donostiako Nazioarteko Triathloia	Ekaina
Donosti Cup	Uztaila
Kirol Txartela Pala Profesionalaren Saria	Uztaila
Espainiako Hondartza Futboleko Autonomien Selekzioen Arteko Txapelketa	Uztaila
Conchita Martinez - Lara Arruebarrena Tenis Partidua	Uztaila
V. Munilla Nazioarteko Estropada	Uztaila
Klasika Ss-Ss Txirrindularitza	Abuztua
Jai-Alai World Tour Basque Country	Abuztua
Estatuko Erremonte Profesionalaren Zirkuitua	Abuztua
Urrezko Kopa-Aizkolariak	Abuztua
Nazioarteko Zaldien Jauzien Lehiaketa	Abuztua
Nazioarteko Tenis Txapelketa	Abuztua
Zaldien Lasterketak: Urrezko Kopa	Abuztua
Nazioarteko Egia Eskubaloiko Txapelketa	Abuztua
Donostia Hiria Pilota Profesionalaren Txapelketa	Abuztua
Kontxako Estropadak	Iraila
Easo Kopa	Iraila
IX Gimnasia Erritmikoko Taldeen Txapelketa	Iraila



**DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN**
Donostia Kirola



KIROL IKUSKIZUNAK 2018	HILABETEA
Nazioarteko Tiro Olinpikoko Opena	Urria
Lauterdiko Pilota Txapelketa	Urria
Espainiako Bela Arineko Kopa	Azaroa
Samoa-Eeue Errugbyko Partidua	Azaroa
Behobia-Ss Lasterketa	Azaroa
Nazioarteko Ezgaitasuna Duten Karateken Txapelketa	Azaroa
Donostiako Maratoia	Azaroa
Ehf Cup: Bera Bera Eskubaloia- Dunaújváros	Azaroa
Maratoiaren Erdia	Azaroa
Askatuak Cup Saskibaloia	Azaroa
Gabonetako Nazioarteko Igeriketa Txapelketa	Abendua

GOI-MAILAKO KIROLA (kirol modalitate bakoitzean kategoria gorena)

2018. urtean, bere kirol modalitateko gorenko mailako taldeen zerrendari Donostiarrak klubeko gizonen zein emakumezkoen traineruak gehitu behar zaizkio (ACT ligara igotzea lortu zuten bi traineru hauek iaz)

Kirola	Emakumeak	Gizonak
ESKUBALOIA	BERA BERA	
FUTBOLA	REAL SOCIEDAD	REAL SOCIEDAD
BELAR HOCKEYA	REAL SOCIEDAD	
SASKIBALOIA	IDK-GIPUZKOA	
SOFTBOLA	ATLETICO SS	
ATLETISMOA	ATLETICO SS	REAL SOCIEDAD
IZOTZ HOCKEYA	CHH TXURI URDIN	CHH TXURI URDIN
ARRAUNKETA	ARRAUN KIROLAK DONOSTIARRA	DONOSTIARRA
CURLING-A	TXURI BERRI	TXURI BERRI

URREZKO KIROL TXARTELA: GURE KIROLARI NABARMENAK (2017/18)

KIROLARIA	KIROLA	2018. URTEKO AZPIMARGARRIENAK	LORPEN
Adrián Rocandio Peral	Atletismoa	Zilarra 400m Espainiako Txapelketa sub-23 Brontzea 4x400 Union Mediterránea txap.	
Ainhoa Olarra Mujika	Golf-a	Sec Championship txapelketako irabazlea South Carolina Women's Golf-eko irabazlea	
Aitor Goikoetxea Astaburuaga	Piraguismoa	Espainiako Piraguismo Txapelketa (C2)	
Aitor Larrañaga Jaio	Txirrindularitza	5. postua Europako Junior txapelketan (pistako Scracht)	
Alex Goñi De Virgala	Piraguismoa	4. postua Europako Txapelketan (taldeka) Munduko txapelketan parte hartzea	
Alex Prior Majon	Eskrima	Espainiako Gurrpil-Aulkiaren gainean Sable eta Florete txapelduna	
Alfonso De Juana Fabra	Piraguismoa	5. postua Munduko Waveski Txapelketan	
Amaia Benavente Babace	Piraguismoa	Espainiako Itsas-kayak txapelduna (K2)	
Clara Azurmendi Moreno	Badmintona	Europako Txapelketan parte hartzea	
Eduardo Blasco Alvarez	Sorospen eta Salbamendua	Munduko txapelketan parte hartzea	
Eduardo Espinosa Garate	Piraguismoa	5. postua Munduko Waveski Txapelketan	
Eneka Juanena Guruceta	Bela	Brontzezko domina Erregaren Kopan Bela J80	
Felipe Montoya Pulgarín	Irristaketa Artistikoa	Neguko Joku Olinpikoetan parte hartzea	
Fernando Michelena Muguerza	Tiroketa Olinpikoa	Espainiako Egokitutako Tiro txapelduna 4. postua Munduko Txapelketan	
Gonzalo Fuentes Isasi	Triatloia	Zilarrezko domina Espainiako Triatloi Txapelketan	
Hodei Crujeiras Bello	Piraguismoa	Zilarrezko domina Munduko Waveski Junior Txapelketan	
Iker Almandoz Ortigala	Bela	Zilarrezko domina Munduko Bela J80 Txapelketan	
Iñigo Llopis Sanz	Egokitutako Igeriketa	Urrea 400m libre Europako Txapelketan Zilarra 100m bizkarra Europako Txapelketan Zilarra 100 m libre Europako Txapelketan Brontzea 4 x 100 Europako Txapelketan Brontzea 4x 100 estiloak Europa Txapelketan	



KIROLARIA	KIROLA	2018. URTEKO AZPIMARGARRIENAK	LORPEN
Iñigo Sánchez Iraeta	Bela	Zilarrezko domina Munduko Txapelketan	Bela J80
Irati Goikoetxea Astaburuaga	Piraguismoa	Europa eta Munduko txapelketetan parte hartzea	Piraguismo
Irati Mitxelena Balerdi	Atletismoa	Urrea Espainiako Txapelketako luzera jauzian Zilarra Espainiako Txapelketako jauzi hirukoitza	luzera jauzi
Jon Santacana Maiztegui	Egokitutako Eskia	Zilarra Joku Paralinpikoetan (Superkonbinatua)	Paralinpikoetan
Jurgi Zulaika Aranburu	SUP	Urrea Espainiako SUP txapelketan	
Lucas Eguibar Breton	Snowboard	Neguko Joku Olinpikoetan parte hartzea	
María Mujika Zubeldia	Atletismoa	Urrea 60m hesiak Espainiako Txap. (sub 23) Brontzea 60m hesiak Espainiako Txapelketan	
Mikel Sarasola Arrizabalaga	Piraguismoa	Urrea Espainiako Txapelketan (C2)	
Miren Lazkano Zuriarrain	Piraguismoa	Urrea Europako txapelketan (C1 patruilak) Seigarren postua Munduko Kopan	
Natalia Aseginolaza Martín	Golf-a	Zilarra European Young Master txapelketan	
Odei Etxeberria Delgado	Piraguismoa	Brontzea Munduko Junior Waveski txapelketan	
Trihas Gebre Aunoon	Atletismoa	Espainiako Kros txapelduna 9. postua Europako Maratoi Txapelketan	
Unai Nabaskues Lasheras	Piraguismoa	Europako Txapelketan parte hartzea (sub-23)	
Xanet Etxarri Urresti	Piraguismoa	Europako Txapelketan parte hartzea (sub-23)	
Koxme Burutaran Olaizola	Arraunketa	Munduko Junior txapelketan parte hartzea	



TALDEA/KLUBA	KIROLA	2018. URTEKO AZPIMARGARRIENAK	LORPEN
Atlético SS - Softbol	Softbol-a	Ligako txapeldunak 5. postua Europako Txapelketan	
Bera Bera – Eskubaloia	Eskubaloia	Ligako txapeldunak Superkopako txapeldunak	
CH Txuri Berri Curling	Curling-a	Espainiako txapeldunak (emakumeak, gizonak, mistoa) Espainiko Kopako txapeldunak Munduko txapeldunordeak	
CHH Txuri Urdin	Izotz Hockeya	Ligako txapeldunak	
Real Sociedad – Belar Hockeya	Belar Hockeya	Ligako txapeldunak	
CD Gimnasia Rítmica Donosti	Gimnasia Erritmikoa	Espainiako Kopa txapeldunak (taldeak)	
Golf Basozabal (Emakumeen taldea)	Golf-a	Espainiako klubuen arteko txapeldunak Europako kluben arteko txapeldunordeak	




KUDEAKETA ARDURATSUA ETA SOSTENGARRIA

DONOSTIA KIROLA-N PLANGINTZA ESTRATEGIKOA

PLANGINTZA ESTRATEGIKOAREN ESKEMA

Donostia kirola



KUDEAKETA AURRERATUARI
BRONTZEZKO AINTZATESPENA

KUDEAKETA EKONOMIKOA

Aurrekontuaren balantzea (2018)

2018 urteari dagokion aurrekontuaren balantzeak gastuen egikaritze mailaren jaitsiera erakusten du, kontabilizazio-irizpidea aldatu egin baita aurten (aurrekontuaren ixtea abenduaren 15era aurreratu da). Aurtengo dirulaguntzen zurrizko prozesua luzeagoa izan da eta horrek 4. kapituluko egikaritze maila baxuagoa izatea ere berekin ekarri du.

Erakundearen autofinantzaketari dagokionez, aurrekontuetan finkatutako helburua gainditu egin da, bai autofinantzaketa orokorra baita autofinantzaketa funtzionalarena (dirulaguntzak zenbatu gabe). Edonola ere, lehen aipatu dugun kontabilitate-irizpide aldaketa horrek autofinantzaketa adierazlearen igoerak ere eragina izan du, ixtea abenduaren 15ean egiteak zenbait gastu 2018. urtean kontutan ez izatea ekarri du eta, beraz, 2019 urteko aurrekontura pasa dira.

GASTUAK

	BEHIN-BETIKO AURREKONTUA	EGIKARITUTAKO AURREKONTUA	%
1 Kapitulara	4.474.594,80	4.337.357,38	%96,93
2 Kapitulara	8.929.130,07	7.238.861,99	%81,07
3 Kapitulara	23.500,00	20.945,68	%89,13
4 Kapitulara	1.895.535,96	719.911,18	%37,98
Guztira	15.322.761,01	12.317.076,23	%80,38


SARRERAK

	BEHIN-BETIKO AURREKONTUA	EGIKARITUTAKO AURREKONTUA	%
3 Kapitulara	7.896.995,01	7.894.204,93	%99,96
4 Kapitulara	187.272,46	185.491,57	%99,05
5 Kapitulara	96.183,86	103.670,01	%107,78
Guztira	8.180.452,23	8.183.366,41	%100,04


	BEHIN-BETIKO AURREKONTUA	EGIKARITUTAKO AURREKONTUA	
% AUTOFINANZAKETA	%53,39	%66,44	
% AUTOFINANZAKETA FUNTZIONALA	%60,92	%70,56	





Donostia Kirolaren autofinantzaketa maila







% Autofinantzaketa funtzionala - Donostia Kirola






PERTSONAK, DONOSTIA KIROLAREN ERAGILEAK






DONOSTIA KIROLA, GIZARTEAREKIKO KONPROMISOA DUEN ERAKUNDEA

Donostia Kirolak, bere ardatz estrategikoetariko batek adierazten duenez, pertsona guztiak kirola egin ahal izan dezaten, bere egoera soziala edo ekonomikoa zeinahi ere den ekimen ezberdinak garatzen ditu, eta baita pertsonen bizi kalitatea hobetzera bideratzen ditu ere zenbait programa. Hauen artean, Kirol txartela Solidarioa, Gizarte Kirol Txartela, harrera etxeekin akordioak, errefuxiatuei lan egiten duten elkarteekin lankidetzak...Ekintza guzti hauek gure Balantze Sozialean jasotzen dira, hau da, ekimen hauengatik jasotzen ez ditugun diru sarrerak gehi zuzenean horretarako bideratzen direnak.




KIROLEAN ERE EUSKARAZ, GURE ERRONKA.




GURE INGURUGIROAREN KALITATEA HOBETZEKO EKARPENA

Donostia Kirolak eskaintzen dituen zerbitzu eta kirol instalazioen jasangarritasuna da gure helburu estrategikoetariko bat. Kontratu energetiko berriaren esleipenak 2016. urtean, kontsumoen jaitsiera ekarri du berekin ekipamenduak berritzeko egi diren inbertsioei esker, eta, batez ere, CO₂-ko isurketen beherakada garrantzitsua erregistratu da, kontratutako energia elektriko guztia energia-iturri berriztagarrietatik etortzen baita.






Erabilera bakoitzeko kontsumo energetikoa (Kw h)



Erabilera bakoitzeko ur-kontsumoa (litroak)





DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Donostia Kirola




memoria - 2018







... ETA BETI HIRITARREN ZERBITZURA!

GURE ZERBITZUEN ERABILTZAILIEN GOGOBETETZEAREN BILA

Hiritarrei eskaintzen diegun zerbitzuaren etengabeko hobekuntza da gure kudeaketa markatzen duen ardatza. Horretarako, intereseko talde ezberdinen gogobetetzea aldizka neurtzen dugu, modu horretaz beraien eskaerak hobeto detekta ditzakegu eta, ondorioz, hobekuntza planak egin ditzakegu bere behar nagusiei erantzuna emateko helburuz.







HIRITARREKIKO KOMUNIKAZIOA, HURBILTASUNA ETA GARDENTASUNAREN BERMEA

